

Udalaren jarrera kritikatu du Kukukak

■ Orain arteko lan "eredugarria" sendotu nahi dute Udalaren laguntzaz ■ Arazorik handiena baliabide eskasia dute ■ Udalak ez die jaramonik egin azken bi urteotan Kukukaren eskaerei

Udalak antzerkian eta dantzan ari diren herritarrekin duen axolagabekeria salatu zuen Kukukak asteartean Jalgi tabernan eman zuen prentsurrekoan. Herriko Antzerki eta Dantza Eskolak elkarlana proposatu die Udal agintariari, eta azken bi urteotan zenbait aldiz bildu badira ere, beren eskaerak ez dute erantzunik izan. Antzerkia eta dantza, musu truk eta euskaraz lantzen duen eskolak lokal bat, diru-laguntza handiagoa, Kultur Etxea erabiltzeko eta bertako programazioan parte hartzeko aukera eta irakasleen formakuntzarako laguntza eskatu dio Udalari.



Udalari Kuku egin diote herriko dantza eta antzerki zaleek, elkarlana eskatuz.

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak plazara atera beharra ikusi du, ez bere lan berriren bat aurkezteko Eskola beraren beharrak eta Udalaren babesik eza jakinarazteko baizik. "Herriatik eta herriarentzat sortuak izanik, herriari gogoeta transmititu nahi genion" adierazi zuten.

Duela urte batzuk hasi zen Landaberri Eskola antzerkia eta dantza euskaraz egiten, iaz Kukuka izena hartu zuen baina betiko helburu eta filosofiarari eutsi dio: "Antzerki eta dantza

zaletasuna, ikasleen heziketa pertsonala eta euskara bultzatzea, herriko beste elkarteekin elkarlanean, modu ireki, herrikoi eta gardenean".

Oinarri sendoaren bila

Herriko antzezle eta dantzari amateurrek ez dituzte baldintzarik onenak, Kukukak salatu zenez, "Aterperik eta biltzeko lekurik ere ez dugunez, nomada ibili behar izaten dugu bate-tik bestera".

Horregatik, "lana baldintza egokiagotan aurrera eraman

ahal izateko", aspaldi eskatu zioten hitzarmen bat Udalari. Iaz txosten bat eraman zuten Udalera bost eskakizun konkretuekin: lokal bat, Kultur Etxearen erabilera, irakasleen prestakuntzarako laguntzak, Antzerki eta Dantzaren herriko programazioan parte hartzea, eta egun jasotzen duen diru-laguntza handitzea. Prentsaren bidez ikusi dute Udal agintariak azken hilabeteotan hainbat hitzarmen sinatu dituztela, baina Jesus Zaballos alkatearekin eta Jone Altuna Kultur

Batzordeko buruarekin elkartu badira ere euren ez dute erantzunik izan.

Diru laguntzak

Kukukako partaideek eskolako ume, gazte eta helduen bilakaera eta jasotako diru laguntza alderatu zituzten astearteko salaketan: "1.200 euro jaso genituen 2008an, 1.000 euro 2009an, eta 1.014 iaz. Aurtengoa, ikusteke dago. Duela bi ikasturte, 37 talde eta 470 ikasle inguru matrikulatu ziren. Iaz, 46 talde eta 550

ikasle inguru, 13 irakasleren gidaritzapean. Ikasturte hone-tan, 61 talde, 728 ikasle (660 inguru Lasartekoak) eta 19 irakasle. Beraz, matrikulatutako ikasle bakoitzeko urte osorako jasotako diru-laguntzaren bilakaera ondokoa da: duela bi urte 2,12 euro eta iaz 1,84. Kopuruak ez dira handiak, eta bilakaera kezkarria. Dena dela, eta inportantea izanik, ez pentsa diru denik guretzat inportantea. Udalaren alde-tik ondo baloratuak ez izatearen sentipena dugu, eta hori da, beste ezeren gainetik, faltan botatzen duguna. Behar genukeen konplizitatea botatzen dugu faltan".

Kukukaren ustez, Lasarte-Orian eskolarte eta amateur mailako Antzerki eta Dantza jarduna eredugarria da, "inbidia sanoaz begirutzen gaituzte" eta bide horretan segi nahi dute. Kukukako partaideek aitortu zuten ideia eta proiektu ugari dituztela, ahuldade handiena baliabide eskasia dela baina aurrera begira daudela. "Orain arte lortutakoa sendotu, sakondu eta biderkatzea da gure erronka eta langintza horretan Udala nahiko genuke bidelagun". •



Udalak eta Biyak Bat-ek hitzarmena sinatu dute adinekoen bizi kalitate hobetzeko /3

KIROLA /6

Iñigo Ibarburu igerilaria Euskadiko txapelduna da eta asteburuan Estatukora doa



Lurra zorua bailitzan liburua argitaratu berri du Iñaki Petxarromanek /5



BATU GAITEZEN

LASARTE-ORIAK AURRERA EGITEKO

Estitxu Alkorta



www.gipuzko.com



Jesus Zaballos alkatea eta Merche Galdos Biyak Bat elkarteoko lehendakaria hitzarmenaren sinaketa ekitaldian.

Adinekoen bizi kalitatea hobetzen duen hitzarmena

Udalerriko adinekoen bizi kalitatea hobetzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak hitzarmena sinatu berri du Biyak Bat erretiratu elkartearekin.

Xede hori aurrera eramateko menpekotasuna eta isolamendua ekiditeko programak egingo dira eta norberaren osasuna eta autonomiaren garapena sustatzeko ekintzak burutuko dira.

Diru-laguntzak

Jesus Zaballos alkatearen eta Mertxe Galdos Biyak Bateko lehendakariaren artean hitzartutakoaren arabera, Udalak Kale Nagusiko eraikina uzten dio erretiratu elkarteari bere ekintzetarako.

Gainera, Udalak konpromisoa hartzen du 2011ko aurrekontuan batetik altzariak

eta ekipamendua erosteko 2.000 euroko gastua baimentzeko, eta bestetik hainbat programa, okupazionalak, kulturalak, kirolekoak, parte-hartzea bultzatzekoak edo berdintasuna sustatzekoak, gauzatzeko 3.000 euroko beste gastu bat egiteko.

Horrez gain, Udalak 3.000 euroko diru-laguntza emango die.

Baldintzak eta mantenua

Bulegoen eta instalazioen garbiketa eta makinaren eta altzarien konponketa eta mantenua ere Udalak egingo du, zerbitzua lagatzen den kasuetan salbu.

Ura, elektrizitatea, gasa eta telefonoaren horniketaren gastua ere Udalak hartuko du bere gain.

Bere aldetik, erretiratu elkarteak, bere ekintzen artean,

gutxienez, gimnasia, yoga, aerobik, eskulanak, kantua, urrezko ezteietako omenaldia, liburutegia eta mahaiko eta mugimendu jokoak mantentzen saiatuko da, beti ere, boluntario nahikoa edukita.

Bere zerbitzuen artean, gutxienez, kafetegia, ile-apaindegia eta pedicura mantentzen saiatuko da eta Biyak Batek azken hauen ustiapena lagatzeko aukera izango du.

Azkenik, erretiratu elkarteak konpromisoa hartzen du, irabazi asmorik gabeko elkarte izanda, bazkide kuota gisa jasotzen duen diru sarrera erabiltzaileei zuzendutako ekintzak egitera bideratzeko.

Gainera, udalerriko festa eta ekitaldietan parte hartzen saiatuko da kaleko ekintzak antolatuz beren presentzia ere nabarmena izateko. •

HIRIBUSA

Zerbitzuaren balorazioa lantzen Zabaletan

Zabaleta Auzolan auzo-elkartea Hiribusaren balorazioa egiten ari da. Horretarako, auzoko etxebizitza guztietan galdetegi bat utzi zuten. Honetan, hiribusaren iritzi orokorraz gain, beste hainbat atali buruz iritzia eskatzen zaie: ibilbidea, geltokiak, ordutegiak, prezioa...

Galdetegia bete ondoren, Auzoko dendan, Larre jatetxean edo Larrekoetxe bidea 5 atzealdean elkarteak duen postontzian utzi daiteke. Jasotzeko azken egunak dira eta beraz orriak lehen bait lehen uzteko eskatzen zaie auzotarrei. Jasotako informazioa aztertu eta txosten bat osatuko du auzo-elkarteak, auzotarrei azaltzeko eta Udalarari aurkezteko.

Auzoko guztien parte hartzea eskatzen dute, aldez aurretik laguntza eskertuz. •



VII. ZINEMA SOZIALA

Inmigrazioaren errealitatea uztartzen

Astlehenean, martxoaren 14an, *Agua con sal* filma eskaini zen Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan.

Filme gogor horren emanaldiak inmigrazioaren gaia jorratzeko balio izan zuen.

Inmigranteen egoera eta euren herrialdea utzi eta bizitza hobeago baten beharra zerk bultzatzen duen azaltzeko, gainera, Esperanza Latina elkarteak kide eta lehendakaria egon ziren Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa.

Honetaz gain, bertan bildu ziren ikusleak nahi izan zituzten galderak egin ahal izan zizkieten. •

KIROLA

Helduentzako irristaketa ikastaroa

Eguraldi ona iritsi da eta haur ugari ikusten da gure herriko kaleetan patinetan. Helduak, ordea, gutxi dira. Horregatik, Ostadar K.F.ak helduentzako irristaketa ikastaro berria antolatuko du martxoaren 26 eta 27an.

Antolatzaileek aipatu digutenez, saioak goizean zehar izango dira eta prezioa 17 euro dira. Honetaz gain, irristaketa ikastaroan izena emateko epea martxoaren 23an, asteazkenean, bukatzen dela ere azpimarratu dute.

Informazio gehiago eskuratzeko Ostadarreko egoitzara, Geltoki kalea 25, hurbildu behar dira interesatuak. •

GIPUZKOA ZERO ZABOR

Erraustegiaren aurkako Flash Moba Zubietan

Gipuzkoa Zero Zabor elkarteak antolatuta Erraustegiaren proiektuaren moratoria eskatzen duen Flash Mob erraldoia grabatuko da Zubietan, martxoaren 20an, igandean.

Elkartearen asmoa Zubietako plazan elkartasun uholdea sortzea da, energia transformatzaileaz bustitzea, eta Zubietako bizilagunei besarkada bat ematea gipuzkoar guztien partetik.

Goizeko 10:30etatik hasita, hainbat entsegu egingo dira. Helduek frontoian izango dituzte; haurrek, berriz, eguerdian Porrotx eta Marimototsen laguntza izango dute pausak gogortu eta hobetzeko. 13:30ak aldera egingo da lehen grabaketa erreboteko frontoian eta 13:45etan bigarrena.

Eta hainbeste dantza egin ostean indarrak berreskuratzeko, barrikotea eta ogitartekoak izango dira, frontoian.

Giro ederra egongo da goiza osoan zehar plazan edo erreboteko frontoian antolatutako diren emanaldiei esker, hala nola, euskal dantza garaikideak edo DJ-a.

Gipuzkoa Zero Zaborrek gonbit egiten du Zubietako Flash Mob-an parte hartu eta erraustegiaren moratoria eskatzera. •

Calçot-ak dastatzeko aukera berria

Buruntz-Azpi elkarteak hirugarren urtez calçot jana antolatu zuen bere elkartearen martxoaren 26an, larunbatean, 14:00etan.

Egun horretan Porqueres herriatik etorritako Josep, Maria, Enric eta Eva lagunek ekarri eta prestatutako calçotak dastatzeko aukera egongo da Basaundi bailarako elkartearen, baita elkarteak lagunek prestatutako duten arkume errearen ere. Calçota tipularen kimua da eta parrillan egina jan ohi da. Erretako azala kentzen zaio eta salsa batean bustitzen da eskuetan jan baino lehen.

Honetaz gain, bazkal ostein, trikitixa eta txalaparta doinuez gozatzeko aukera egongo dela ere adierazi digute antolatzaileek.



Aurreko bi calçot janetan 80 lagun baino gehiago bildu dira. Arg.: Tomas Arruti

Etxeko txikiak oraindik zehaztu gabeko menua izango dute eta 13:30ean hasiko dira bazkaltzen.

Gauzak honela, helduen tiketak 26 euro balio ditu; haurren, berriz, 10 euro.

Txartelak edo informazioa eskuratzeko Buruntz-Azpi elkartera hurbildu edota 666 111 907 telefono zenbakian, Tomas Arrutiri, eskaera egin behar zaio martxoaren 22a baino lehen. •

Iñaki Petxarroman Kazetari eta idazlea

“Porlanezko mundua eraiki dugu”

■ “Lurra, zorua bailitzan” laugarren liburua argitaratu du Iñaki Petxarroman lasarteoriatarak
 ■ Ama lurraren gaur egungo egoera aztertu eta irakurleari gogoetarako bidea zabaltzen dio

2000. urtean “Nafarroa: iragana eta geroa”, 2003an “Katearen begiak” eta 2007an “Begirada bat Kubari” argitaratu ondoren, “Lurra, zorua bailitzan” liburuarekin dator Iñaki Petxarroman lasarteoriatarra. Azken lan honetan, Ama lurra Euskal Herrian sufritu dituen erasoen bilduma egin du, hainbat datu jaso eta irakurleari gogoetarako bidea ireki. Egungo munduak arazo ekologiko handiak ditu eta etorkizunari begira, atzerako bidaia proposatzen du, liburuan Petxarromanek, sistema ekonomikoak bultzatzen gaituen bidearen aurkako norabidea hartzeko, alegia.

Nafarroako historia eta zenbait nafarren istorioak, eta Fidel Castroren ondorengo Kuba, jorratu ondoren ekologiarri heldu dio Iñaki Petxarroman idazle eta kazetariak. Kezkatzen duten gaiak buruz idatzi ohi du eta Ama lurra azken urteotan izan duen galera jaso du “Lurra zorua bailitzan” liburuan.

Zer dakar liburu berriak, ekologiarri heldu eta gogoeta bat egin duzu, ezta?

Gogoeta baino gehiago da. Azken finean, bilduma periodistiko bat ere bada, urte askotako datuen pilaketa. Sistema honek leku onera ez garamatzala erakusten du.

Liburuaren sarreran hainbat datu agertzen dira: adibidez 30 urtetan CO2aren isurpena %47a handitu dugu, azpiegitura eta hirigintzaren ondorioz zoru urbanizatua hirukoiztu egin dugu, Europa mailan porlan tasa altuena dugu, Zaborraren kopurua bikoiztu egin dugu 20 urtetan... Datu hauek ematen dira atzera egiten hasi behar dugula erakusteko. Hori da liburuaren funtsa.

Datuak eta zure gogoetak uzartu dituzu beraz?

Ama lurraren aurkako erasoak gero eta maizago, gertuago eta sarriago ikusten direnez,

aspalditik eta azken urteotan are gehiago, sortu zitzaidan nahikoa dela esateko premia. Daukagun gutxi hori zaindu behar dugula zaintzen duguna baino gehiago.

Gure eskualdea eta gure ingurua nahiko beteta daude. Zubietako gainak sunitsitzen hasiko dira, AHTaren lanak hasteko dira Hernani eta Andoainen, Pasaiaiko superportuaren proiektua hor dago, autobide proiektuak bata bestearen gainean pilatzen dira... erokeriarren itxura duen horri erantzun bat eman nahi nion nik ere eta informazio dezenteman jartzen dudanez, bilduma lana egin dut irakurleak ere laburtuta izan dezan, gogoeta bat eskatuz eta gogoetarekin batera aldaketa bat ere bai.

Proiektu handi horien aurrean zer erantzun ematen du gizarteak?

Nik uste, gehien kaltetuak diren sektoreek ematen dutela erantzuna, sentsibilitate handiena dutenek edo tokian kaltea gehien pairatu behar dutenek, baina beti erantzun puntualak dira, ez dago gizartearen erantzun orokor bat.

Kontsumoaren eredu horretan harrapatuta dago gizarteak, hazkunderaren logikari jarraitzen dion eredu ekonomiko horretan, eta ez

daukagu hortik ateratzeko alternatibarik, harrapatuta gaude. Jakinda eredu horrek azken finean natur baliabideen agortzea bultzatzen duela. Hori gertatzen norbaitek erantzun beharko luke.

Itsasoetako arrain kopuruaren adibidea jartzen dut liburuan: desagertuta dago ia Bizkaiko itsasoan, eta gure arrantzaletan beste itsasoetara doaz orain, baina zer gertatuko da han ere bukatzen direnean? Zientzialari eta adituek hori diote. Edo petrolio bukatzen denean ere, zer? Dena bukatu behar dugu konturatzeko natur baliabideak bukatu egiten direla? Hasi behar dugu gogoeta kontrako zentzuan egiten eta beste norabide batean lanean.

Zein da zuk proposatzen duzun bidea?

Atzera egitea eta zentzu askotan. Gutxiagorekin bizitzea da aldarrikapen bat, gutxiago kontsumitzea, energia gutxiago erabiltzea, azken finean sistema ekonomikoak bultzatzen gaituen bidearen kontrako norabidean joatea. Gero eta gehiago kontsumitzera, gero eta gehiago, azkarrago eta urrutiago mugitzera bultzatzen gaituzte.

Sistema horren logika Barne Produktu Gordina handitzea da eta horretarako dena da baliagarria. Horrek dakar naturari kalte egin eta zigortzea, natur baliabideak agortzea, eta gizarteak ez da zoriontsuagoa ikusten, inoiz baino behar handiagoak daude, jendea inoiz baino estresatuago dago, ... ez dut uste eredu oso ona denik. Pentsatzen hasi behar dugu bide honek ez daukala irteera onik eta beste eredu bat behar dugula.

Japonen gertatutakoak leiho bat irekiko al du?

Ez dakit. Kazetariok badakigu gauza hauek nola izaten diren: hasieran izugarriko hondamendia balitz bezala hartzen ditu jendeak, baina pixkanaka ahazten dira. Lobby nuklearren berrindartze edo loraldia ikusi dugu azken asteotan, petrolioaren bukaeraren aurrean alternatiba berde moduan. Eta orain Japonian gertatu denak izugarriko zaplaztekoa eman die.

Baina gaur ez dakigu energia nuklearren aurreko astean baino gehiago. Tragedia bat gertatu da eta beste muturrean jarri.

Rudiaren gizarteak gaude, informazio oso azkar jaso eta ahaztu egiten da. Txernobillekoa orain dela 20 urte gertatu zen eta jada ahaztuta zena.

Garapen iraunkorra posible al da?

Garapen iraunkorra, Nazio Batuen Erakundeak duela 30 urte onartutako txoste-

nean oinarritzen da: gizartearen garapena bideratzen duen sistema, hurrengo belaunaldien mundua kolokan jarri gabe egin behar da, natur baliabideak hondatu eta zapuztu gabe. Argi dago hori ez dela bete.

Lasarte-Oriak jada ez du bere lurrik...

Gure herriak duen arazorik handiena lurra da, ez dauka eta ingurukoa beste udalerriena da. Adibidez, Donostiari dagokion zatian “zementazioa” egingo digute Zubietako plangintzarekin.

Lasarteko agintariei gogoeta bat eskatuko nieke: ea zer herri utzi nahi dioten ondorengoei, ea porlanez betetako herria gustagarria den. Pentsa dezatela zertarako behar

diren hainbeste etxebizitza, etxebizitzaren kopurua ikaragarria denean.

Egunen batean nekazaritza bultzatu nahi bada ere, ezingo da ez delako lurrik izango. •



Gurasoak eta haur hezkuntza aztergai

Haur eta nerabeen hezkuntzari buruzko hitzaldi sortari hasiera eman zitzaion asteazkenean

Lasarte-Oriako Udaleko Osasun sailak urtero legez, haurren hezkuntzari buruzko hitzaldi sorta antolatuta ohi du. Aurten gainera, berrikuntza bat dakar, nerabeen arazoak ere aztertuko dira.

Hitzaldi sorta honetako lehenengo saioa, asteazkenean eskaini zuen Pilar Seminario Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

“Gurasoak ere laguntza behar dugu” izenburuko saioan Seminariok gurasoek haurra hezteko orduan dituzten kezka eta beldurren aurrean zer egin dezaketen azaldu zuen.

Gainera, egon ziren entzuleek ere haien iritzi eta esperientziak azaltzeko aukera izan zuten saio osoan zehar.

Kezkak eta galderak

Lehenik gizakien galderak eta kezkak egin eta izateko beharren arazoia azaldu zuen.

“Animaliek eta ugaztunek, gizakiak ezik, haien haurrak hezten dituzte arazorik gabe; gizakiok alde arrazionala dugu eta horrek sortzen dizkigu kezkak eta galderak,” aipatu zuen.

Izan ere, gizakietan pentsamendua, senak eta emo-



Pilar Seminario irakasleak, gurasoek haurrak hezteko laguntza behar duten edo ez aztertu zuen asteazkenean eskaini zuen saioan.

zioak baino azkarrago garatu direla azaldu zuen.

Era honetara, hiru puntu horiek gizakietan talka egin dezakete bai gure jarrerarekiko baita haurren jarrerarekiko ere eta honela kezkak sortzen dira.

Gainera, gaurko gizartearen senak eta emozioak alde batera uzten direla eta horrek haurraren garapen prozesu naturala ez ezagutzea dakarrela aipatu zuen.

Azkenean, hiru puntu

horien oreka lortu beharko litzatekeela azpimarratu zuen eta gurasoek laguntza behar dutela onartzea kostatzen zaiela.

Era berean, kultura desberdinek gurasoek eskaini dezaketen hezkuntzan eragina izan dezakeela ere eztabaidatu zuten, hala nola, oihanean.

Informazioa

Honetaz gain, gurasoek esku-ratu dezaketen informazioari

buruz ere mintzo zen saioan.

Egun, berezkoa genuen informazioa edo informazio naturala galdu dela eta, beste iturri batzuetara jotzen dela aipatu zuen.

Informazio hori ohiturakoa edo inkontzientean duguna izan daiteke edo gaur egun dauden erantzun azkarra ematen dutenak.

Azken honen bitartez, gurasoek ez dute hausnartzen umei gertatzen zaiena, ara-

zoari konponbide azkarra ematea bilatzen dute.

Gauzak honela, gizartearen helburuaren arabera izan daitekeela ohartarazi zuen irakasleak.

Ohiturazko hezkuntzari dagokionez, psikoanaliaren eragina handia dela azpimarratu zuen. Haurrei frustrazioak eragitea eta bere onerako gauzak egitea mendekotasunean heztea izan daitekeela adierazi zuen.

Eta ostean, haurrei ezartzen zaizkien murrizketak eta egiten zaizkien eskaerei buruz eztabaidatu zen.

Izaera

Era berean, gurasoen izaerak ere haurraren hezkuntzan eragina duela aipatu zuen.

Helduen izaerak haurren izaeraren osatzen garrantzia duela eta haurrei, segurtasuna eta konfiantza adierazi behar dietela azpimarratu zuen.

Hurrengo saioa

Haur eta nerabeen hezkuntzari buruzko hitzaldi sorta honek hilaftero saio bat izango du. Hurrengo, apirilaren 12an, asteartean izango da eta Fermín Korkostegi "Jostatu ikaslea" gaia jorratuko du. •

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA

GORENAK
EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK
SIDRAS SELECTAS DEL PAIS VASCO

HAUEK IZAN DIRA AUKERATUAK.

PROBARIK GOGORRENAK GAINDITU DITUZTELAKO.

KALITATE ETA PROFESIONALITASUNEAN NAGUSI DIRELAKO.

HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

Ibarburu igerilaria Euskadiko txapelkun

Tximeleta probetan nagusi izan zen eta 100 metro libreetan zilarrezko domina eskuratu zuen

Buruntzaldea Igeriketa taldeko infantilek, Euskal Herriko neguko txapelketan lehiatu ziren martxoaren 6 eta 7an.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, "oso txukun aritu ziren, ia denentzat lehen aldian zen txapelketa honetan." Izan ere, taldeko Jone Vasquez, Garazi Alkorta, Mikel Arribillaga, Unai Bueno eta Kevin Iglesiasentzat lehenengo Euskadiko txapelketa izan zen eta "ederki erantzun zuten".

Honela, guztira, lau domina eskuratu zituzten Buruntzaldea Igeriketa taldeko gaztetxoek, taldeko bi marka eta 10 marka pertsonal ere egin zituzten.

Lau domina

Dominei dagokionez, Iñigo Ibarburuk bi urrezko eta zilarrezko bat eskuratu zituen.

Urrezkoak 100 eta 200 metro tximeleta probetan lortu zituen eta 100 metro libreetan eskuratu zuen bigarren postua.

Entrenatzaileak jakin arazi digunez, 200 tximeletan, nagusi izan zen Iñigo. Bere marka 7



Arg.: Buruntzaldea Igeriketa taldea

Iñigo Ibarburu erdian Euskadiko txapelkun bezala izendatu eta gero. Asteburu honetan, Sabadellen egongo da Estatuko txapelketan.

segundutan hobetu zuen eta 3 segundugatik ez zuen Espainiako gutxienekoa lortu.

Gainera, 100 metro libre-tako Espainiako gutxienekoa egin zuen berriro ere.

Iñigoz gain, Itsaso Tolosa izan zen domina eskuratu zuen beste igerilaria.

Itsasok 200 bizkar proban podiumeko hirugarren postuan egotea lortu zuen.

Eta 100 tximela proban eta 100 bizkar proban bosgarren izan zen.

Taldeak

Igeriketa taldeko 4x200 libre eta 4x100 estiloetako erreleboetako taldeek marka berriak egin zituzten txapelketan. 4x200 libre-tako taldeak Gipuzkoako txapelketan lortutako marka 8 segundutan

hobetu zuen eta 4x100 estiloetako taldeak, berriz, segundu erdian.

"Froga indibidualetan parte hartu ez arren, Kevin Iglesiasen laguntza gabe posible izango ez litzatekeena," azaldu du entrenatzaileak.

Bestalde, 4x100 libre-tan "ezin izan zuten errelebo marko hobetzerik izan baina ez horretan saitu ez zirelako,"

adierazi du entrenatzaileak. Izan ere, Iñigo Ibarburuk 50 libreko bere marka hobetzea lortu zuen.

Markak eta postuak

Hau guztiaz gain, gaztetxoek hainbat marka pertsonal hobetu zituzten.

Unai Buenok 200 estilo proban, bere marka 9 segundutan hobetu zuen eta 400 metro libre-tan, "sekulako-proba" egin zuen, bere marka 14 segundutan jaitziz.

Mikel Arribillagak 200 bizkar proban bosgarren amaitu zuen; 100 estiloetan, bere marka 3 segundutan hobetu eta 100 bizkar proban ere bere marka hobetuz, zortzigarren izan zen.

Eta azkenik Garazi Alkorta, 800 libre proban bederatzigarren izan zen; 100 tximeleta proban, zazpigarren eta 200 tximeletan, laugarrena. Azken honetan, entrenatzaileak aipatu duenez, "gutxi-gatik ez zuen dominarik lortu".

Gauzak honela, asteburu honetan, Iñigo Ibarburu Sabadellen dago Estatuko txapelketan parte hartzen. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 19

10:00etan, Ostadar - Sporting de Herrera (I. kadetea, kopa) Michelinen.
11:30etan, Ostadar - Zumaiaiko (Emakumezkoen KDT F-II, txapeldunen fasea) Michelinen.
11:45ean, Antiguoko - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila, igoera fasea) Berio, Donostian.
13:00etan, Ostadar - Zumaiaiko (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.
15:30etan, Texas Lasartearra - Hernani (I. erregionala, kopa) Michelinen.
17:15ean, Ostadar - Hernani (I. jubenila, kopa) Michelinen.
17:30etan, Usurbil - Ostadar (I. erregionala, igoera fasea) Harane, Usurbilen.

Igandea 20

10:00etan, Ostadar - Lengokoak (Infantilen Ohorezko Maila, txapeldunen fasea) Michelinen,
10:20etan, Santo Tomas Lizeoa - Ostadar (Partehartzte Infantilak, kopa) Berio, Donostian.
11:30etan, Ostadar - Allerru (Erregional Goren) Michelinen,
16:30etan, Mondragon - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Mojategi, Arrasaten.
17:00etan, Hondarribia - Ostadar (Infantil Txikiak, kopa) Ondartza, Hondarribian.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 18

HERRIKO TXAPELKETA
19:45ean, Morrison's - Semb. Andalus
20:40etan, Epel - Ayete

Larunbata 19

16:00etan, ISU Leioak - Gamon Carpinteria MAS (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.
17:45ean, Aldaz H.K. - San Jorge Santurtzi (Nasional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

09:10etan, Kalaberi Z - Katakras
10:00etan, Naiban - Ainhoa
11:00etan, ISU Leioa - Ilargi
12:00etan, Izarra - Buenetxea
13:00etan, Viña del Mar - Indaux
14:00etan, Obelix - Izkiñ
15:00etan, Illun - IOB H.K.
16:00etan, Oria kris. - Lekuona Mena

PALA

Larunbata 19

15:00etan, M. Aizpurua eta I. Arluziaga - I. Begiristain eta X. Etxezarreta

Igandea 20

09:15ean, P. Sarasola eta J. L. Urruzola - I. Lizaso eta J. Alzibar
10:00etan, I. Bardaji eta A. Zubizarreta - B. Odriozola eta S. Martin

SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA

18:00etatik aurrera
Astelehena 21
Agustin Erkizia - Iñaki Garcia
Alberto Udabe - Veronica Gonzalez

Asteartea 22

Jon Linazasoro - Michel Zugasti
Oswal Cañedo - Joaquin Peña

Asteazkena 23

Xabier Linazasoro - Oinatz Iparragirre
Javier Serrano - Patxi Delgado

Osteguna 24

Iker Cañedo - Emilio Hernandez
Irati Agirre - Quinin Calvo

ATLETISMOA

Igandea 20

10:00etan, Zumaburu-Sasoeta eta Landaberriko ikastetxeetako gaztetxoek Kutxak antolatutako Atletiadan parte hartuko dute, Donostian.

IGERIKETA

Ostirala 18

09:45ean, Buruntzaldea Igeriketa taldeko Iñigo Ibarburu Infantil mailako Espainiako Txapelketan 100 metro libre proban lehiatuko da, Sabadellen.

Larunbata 19

10:00etan eta 17:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko junior, promesa eta absolutu mailako gazteak Neguko Euskal Herriko Txapelketan izango dira, Getxon,
17:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko Iñigo Ibarburu Infantil mailako Espainiako Txapelketan 100 metro tximeleta proban lehiatuko da, Sabadellen

Igandea 20

10:00etan eta 17:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko junior, promesa eta absolutu mailako gazteak Neguko Euskal Herriko Txapelketan izango dira, Getxon,

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 19

16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek XXX. Loiola Sarian parte hartuko dute, Azpeitian.
16:30etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Zarautzko Sarian parte hartuko dute,

Igandea 20

09:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak irteera du Amezketara.
10:30etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek XXXII. Abascal Oroimenezkoan parte hartuko dute, Eibarren.

DUATLOIA

Larunbata 19

15:30etan, hainbat herritarrek Euskadiko duatlo motzeko txapelketa den Oñitiko XX. duatloian parte hartuko dute.

JUDO

Larunbata 19

16:30ean, LOKEko Mario Garrido, Josu Olmos eta Leire Zubizarreta judoek 20 urte azpiko Espainiako txapelketako sailkapen saioan parte hartuko dute, Gasteizen.

BOLA-JOKOA

Igandea 20

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak Lehendakari txapelketako jardunaldia du, Zerainen.

ESKOLA KIROLA

Larunbata 19

09:30etatik 10:45era, Landaberri eta Zumaburu-Sasoeta ikastetxeetako LH2 mailako aurrebenjaminek kirol hastapeneko topaketa dute, Kiroldegian.
10:45etik 12:00etara, Landaberri eta Zumaburu-Sasoeta ikastetxeetako LHI mailako aurrebenjaminek kirol hastapeneko topaketa dute, Kiroldegian.

Egunero

Erakusketa

ATZEGI, 50. URTEURRENA erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa

SHANDRA PEREZ LUCEROREN margolanak ikusgai. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Ostirala, 18

Djen emanaldia

DJ RASK (Crimen X Irun), Underground Hip Hop session emanaldia. Ilargi taberna, 23:00etatik aurrera.



Igandea, 20

Zinea

ZIGORTZAILEAK haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3, 30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Antzerkia euskaraz Jalgin gaur iluntzean

KING KONG NESKA antzezlan Josune Monzon aktorearen eskutik. Josunek Virginie Despentes-en (Teoria King Kong liburuaren idazlea) testuak erabili ditu. Bakarriketa manifestu feminista batean oinarrituta dago. Aktoreak emakume mota ezberdinetaz, itsusitasunari eta emetasunari buruz arituko da modu dibertigarrian.

GAUR, OSTIRALA 18
JALGIN 22:30EAN.
EUSKARAZ

Astelehena, 21

Zine soziala

RETORNO A HANSALA filma eskainiko da Danok Kideak antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Filmare-

kin batera, Koperazioa eta solidaritateari buruz mintzatu-ko dira Medicus Mundi elkar-terko hainbat kide. Manuel Lekuona kulturetxean, arratsaldeko 17:30ean.

GAZTELANIAZ.

Asteazkena, 23

Ikastaroa

TXAKURRAK ONDO HEZTEKO ikastaroko hirugarren saioa. Oraingo honetan baliozko legediari buruz arituko dira adituak solasean. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Osteguna, 24

Filma

Topaguneak antolatutako FILM LABURREN ZIRKUITUko emanaldia izango da. Zortzigarren edizio honetan euskarazko bederatzik film labur eskainiko dira. Jalgi kafe-antzikian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Ostirala, 25

Dantza

MIKEL URDANGARIN ETA TRASPASOS D.T.-k "Nora" proiektua eskainiko dute Lasarte-Oria Dantzan egitasmoaren barruan. Sarrera, 6 eurokoa da. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Larunbata, 26

Antzerkia

HELEN haurrentzako antzerkia Panta Rhei taldearen eskutik. Sarrera, 3,30 euro. Manuel lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ

Oharrak

Korrika 17ko arropa salgai

Korrika 17aren arropa, kami-setak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Sorgin Dantza

Udalaren 25. urteurrenean, Ttakunek antolatutako Sorgin Dantza saioan parte hartu zutenei jakin arazten zaie, Udalak ospakizunetan parte hartu dutenei eman dizkien origarriak, boligrafoa eta giltzatak, Ttakunen egoitzan, Geltoki kalea 4an, daudela.

Eskolako estutxe bat galdu da

Eskolako estutxe bat galdu da, granatea, Kutxatik Euskotreneko geltokiaren bidean. Estutxearen barruan ahots grabagailu bat, 2 pendrive eta giltza bat zeuden besteak beste. Itzultzea sarituko da. Harremanetarako telefonoa: 667 680 498 / 667 315 879 (Izaro, M^a Angeles).

Erretiratuen bidaia Benidormera

Biyak Bat elkarteko bazkide guztientzako antolatuta dute 15

eguneko bidaia Benidormera. Irteera maiatzaren 15ean izango da eta itzulera 29an. Benidormeko Cristal Park izeneko hotolean hartuko dute ostatu. Norbaitek interesik badu edo informazio gehiago nahiko balu, Biyak Bat elkar-terteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa behar du.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, betaurreko graduatuak, poltsa eta telefono mugikor bat, haur zamarra bat eta bi larruzko zamarra.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesurik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari



Nondik gurutzatu dezakegu errepidea?

Pasa den igandean, Zumaburu auzotik Oria ibaiko presaraino doan bidegorria jarraituz paseotxo bat eman nahi nuen nire seme-alabekin.

Oriako zubira iritsi nintzenean berriz, errepidea zeharkatzeko zebra biderik gabe aurkitu ginen. Ez dago gurutzatzeko modurik, ermitaraino joanez gero ere, hor ezin da berriro ibai ondora zeharkatu. Bi haur, patinak, motxila, zebra biderik ez... nahiko komeri izan genituen errepidearen bestaldera pasatzeko.

Norbaitek jarri beharko luke zebra bideren bat errepidea gurutzatzeko, ez? Udalak, Aldundiak...

A.A.

Eskutitza

Igerilekua eta hotela

Lehengoan, artikuluko batean alkate jaunak azaldu zigun, luze eta zabal, nolako negoziaketa ahalmen handia duen, Goiegi inguruetan hotel bat egin nahi duen sustatzaileari kendu baitzion igerileku bat lasarteoriatar guztien erabilerrako izatea. Artikuluari fotomuntaketa bat eranstean zion, igerilekuaren ondoan 4 solairuko hotel bat ageri zela.

Hara, Zaballos jauna: uste dut egia esan behar zenukeela, egia osorik, ez erdizka (horixe baita, oraingotan, erdizkako egia), bestela gezurraren itxura hartzen baitu. Egunkarian ez zenuen 4 solairuko hotela marraztu behar, baizik 8 solairuko, eta jarraian aitortu, argi eta garbi, aurreikusita zeuden 4 solairuen ordez, sustatzaileak 8 solairuko hotel bat eraikitzeko eskaera aurkeztu duela. Zuk, Zaballos jauna, esan behar zenuen, gainera, zure bulegoan negoziatu zenuela sustatzailearekin, eta aitortu behar zenuen igerilekuaren erabilera publiko ordain bat dela, 8 solairu eraikitzeko baimenaren truke.

Ez hori bakarrik: argitu behar zenuen hasierako proiektuaren funtsezko aldaketa hori, baita eraginaren ikerketa ere, azterketa eta alegazio fasean daudela oraindik, alegia, onartu gabe.

Horixe dena esan eta erakutsi behar zenuen, baita azaldu ere herritarrei nola pentsatzen duzun kudeatu daitekeela igerilekuaren erabilera partekatua. Beste guttia, jendea nahasteko eta populismo merkea egiteko gogoia da, hauteskundeetarako bi hilabete ditugunean; eta hori, Zaballos jauna, urrun dago alkate batek nahitaezko duen zuzentasunetik.

Estitxu Alkorta EAJren eleduna Lasarte-Orian

Laburbira, Film Laburren VIII. zirkuitua

Martxoaren 24an, 21:30ean film laburren emanaldia egongo da Jalgi Kafe Antzokian

Topaguneak, Euskara elkartearen federazioak aurten ere martxan jarri du Laburbira, Film Laburren zirkuitua. Zortzigarren edizio hau martxoaren 15etik apirilaren 16a bitartean izango da.

Azken urtean ekoizitako euskarazko bederatzikuzentzuzeko jarriko ditu ikusgai Euskal Herriko 26 herrietan, eta horietako bat Lasarte-Oria izango da.

Gure herrian, martxoaren 24an egongo da filmak ikusteko aukera, gaueko 21:30ean Jalgi kafe-antzokian. Gutxi gora behera ordu beteko saioa izango da.

Berriak eta bide luzekoak

Emanaldi bakoitzean, 2009 eta 2010ean sortutako 9 lan eskainiko dira.

Aurreko edizioetan bezala, honetan ere, ibilbide luzeko egileak eta egile berriak kontuan hartzeko ahalegina egin

dute Topagunetik.

Horrela, Asier Altuna eta Angel Aldarondo bezalako zuzendari ezagunen lanak ikusi ahal izango dira, baita oraindik hain ezagunak ez diren Kepa Errasti, Jon Artola, Saio Aizpuru "Txintetilla", Aitor Artola, Irune Gurtubai eta Ibai Vigil-Escalera, zuzendariak ere.

Gainera, aurreko edizioetan bezala, 2010. urteko urriaren 30etik azaroaren 6ra Ermuan egin zen Kamera-torian, Topaguneak antolatutako Ikus-entzuzekoaren Rallyan, sortutako hiru lan sartu dira tartean.

Gustu guztientzako

Formatu, estilo eta izaera ezberdineko filmak osatzen dute emanaldia: dokumentala, animaziokoa, sormeneko, umorezko laburrak, serioagoak, irudi errealekoak... Laburbira euskarazko produkzioak



Laburbiraren aurkezpenean Manuel Moreno Topaguneko Kultura teknikaria, Asier Altuna eta Saioa Aizpuru zuzendariak egon ziren.

ezagutzeko aukera paregabea da.

Martxoaren 24an Jalgin

Martxoaren 24an, gaueko 21:30etatik aurrera *Maritxu*,

Artalde, *Ondar Ahoak*, *S@rtaldea*, *Esku-Titi*, *Blank Postcards* eta Kameratokiaren barruan egindako *Biak bat*, *Barrura Begira* eta *Nire Bista Faboritoa* film laburretaz

gozatzeko aukera egongo da Jalgi kafe-antzokian.

Ziurrenik ikusleek sentimenduetan eragingo du film labur hauetako bat baino gehiagok. •

